

# Ezpalak

JON TORNER

**Irantzu Rojo** bizkaitarrak irabazi zuen Miarrizten jokatu-tako Euskal Herriko Haur Kantu Txapelketa, gaztetxoan mailako bakarlarrien sailean. Bikoteetan Ondarroako Loinatz Iraolagoitia eta Lore Lema nagusitu ziren eta taldeetan, Hazparne Lekuine eta Makeako taldea. Txikien mailan berriz, Maina Garatek eta Donazarreko San Mixel eskolako taldeak irabazi zuten, bakarlarrien eta taldeen sailetan, hurrenez hurren.

**Felix Viscarret** zinemagile nafarrak *Bajo las estrellas* (Izarren pean) bere lehenengo filma estreinatu du. Filmaren zatirik handiena Lizarra inguruan grabatu dute, eta istorioak Fernando Aranburu idazlearen *El trompetista del Utopía* eleberria du ardatz. Madrilen zerbitzari eta tropeta jotzaile bezala lanean ari den mutilla Lizarrara itzuli beharko da, eta han ezusteko ugari izango ditu. Alberto San Juan, Emma Suarez, Julian Villagran eta Violeta Rodriguez dira pelikulako aktore nagusiak.

**Arantxa Urretabizkaia**, Andoni Egaña, Toti Martinez de Lezea, Patziku Perurena, Edorta Jimenez, Miren Agur Meabe, Unai Elorriaga eta Itxaro Borda idazleen testuak bildu ditu Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak plazaratutako *Lua, herriaren amasa* liburuak. plazaratu du. Lurrari, urari eta aireari buruz idatzitako testu horiekin batera, Joseba del Villarren argazkiak aurki daitezke liburu horretan.

## Red Hot Chili Peppers, Iron Maiden eta Metallica Bilbao Live jaialdian



**BILBAO BBK LIVE** jaialdiak egitarau benetan aberatsa aurkeztuko du aurten. Ekainaren 21ean, 22an, 28an eta 29an izango dira kontzertuak, Kobetamendi parkean. Kartelesko izen nagusiak Iron Maiden (21ean), Red Hot Chili Peppers (22), Fito & Fitipaldis (28) eta Metallica (29) dira. Horiez gain, Within Temptation, Mastodon, My Chemical Romance, Fermin Muguruza, Berri Txarrak, Nun, The New York Dolls, Incubus eta Idi Bihotz izango dira Bilbon. Hilaren 21, 22 eta 29rako sarrerek 65 euro balio dute eta 28rakoak 35 euro. Lau eguneko bonoa 180 euro kostako da, aurreneko bi egunetarakoak 110 euro eta azken bietakokoak 90 euro. Informazio gehiago: [www.bilbaobbklive.com](http://www.bilbaobbklive.com).

**Alicia Amatriain** balet dantzariak *Gaur8n*: «Niretzat garrantzitsuagoa da publikoa negarrez ala barrez ikustea, hogeita lau mila pirueta egitea baino. Askok ez dute horrela ikusten, baina niretzat baleta ez da zirkoa, artea egiteko modua da; dantza nire espresibidea da (...) Ez dut nire burua *freelance* bezala ikusten. *Freelance* moduan konpainia batean baino askoz diziplina handiagoa behar duzu, beste mentalitate bat da».

## Abarrak

### Kristoren mina daraman poeta

*Trapuan Pupua* (Erein) Patziku Perurena.

Urteak dira Patziku Perurenarekin hartu-emanik ez dudala. Bi bider gurutzatu naiz berarekin munduon, kazetari gisa betiere. Bestenaz, behin ere ez. Oraindik orain, akorduan izan dut *Komatxo artean* (Utriusque Vasconiae) liburuen aurkezpenaren karietara. *Trapuan Pupua* artikulu liburua eta Nicolas Ormaetxea Orixe hizpide kristorenak bota zituen, eta berauek bi liburu horietan jasota geratu dira. Ez da samurra Patziku, ezta samurra ere bere eleen eramailea –mezularia– izatea.

Patzikurekin gurutzatu gero, ez dago sosegurik. Patzikuk Kristoren mina baitarama bere baitan. Ez dut gizona ezagutzen, alabaina, *Gizona bere bakardadean* liburua-ren protagonista begitandu dezaket, Goizueta eta Leiza arteko larreetan lasai demonio irudikatzen dut. Alta, hirira jaisten den bakoitzean –Iruñera azken aldikoz, Alexander Tapiaren jardunaldia kari– kristoren minak ekarri ohi ditu berarekin. Zer dela-eta?



Patzikuren aburuz “Goizuetatik Donostia ikusten da, baina

Donostiatik Goizueta ez”. Hori da, bere ustez, zinezko euskaldunen abantailetakoa bat.

Aizak Patziku, sistema politiko berria behar diagu –sistema literarioa barne–, baina mezulariak kartzelara eramaten hasi dituk berriz ere. Sistema desorekatua bizi diagu euskaldunok eta geure minak ez ziguk soseguz bizitzen uzten.

Non hago? Goizuetako edota Leitzako zein larretan? Aditu al duk estalitako egien oihurik bortitzena? Loreek ematen ote diate bizitzeko lain?

Mendirra jo huenetik “bi sosen pupua eta lauen trapua” bizi ditiagu hemen behean. “Argia ez da ikusten” hemen, hirian alegia. Oraino ere, gizakiok guk geuk ematen zioagu min handiena geure buruari. Jaitsi hadi menditik, baina fusible andana ekar ezak sakelan, jaisten haizen bakoitzean hainbat bonbilla –edo buru, alegia– erreta itzultzen haiz-eta!

MIKEL ASURMENDI